



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

## **KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK**

### **AURKIBIDEA**

- 1. HELBURUA**
- 2. APLIKAZIO EREMUA**
- 3. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOA**
- 4. TARTEAN DAUDEN PERTSONAK ETA ARLOAK**
- 5. KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEEK ARAUTUTAKO  
KONTRATAZIORAKO OINARRI OROKORRAK**
- 6. KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEETAN ARAUTUTAKO  
KONTRATUEI EZAR DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA KONTRATU  
HORIEN IZAERA**
- 7. ENPRESABURUAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA**
- 8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK**
- 9. KONTRATUAK PRESTATZEA**
- 10. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ADJUDIKATZEA**
- 11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK**

## **KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK**

### **1. HELBURUA**

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL), Herri Sektorearen Kontratuen Legearen ondorioei begira, ondo betetzen ditu Administrazio Publikoaz bestelakoa den botere adjudikatzaila izateko bete behar diren baldintzak, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 3. artikuluan 3. paragrafoan ezarri duenarekin bat etorrira.

Kontrataziorako barne jarraibide hauen bidez, behar bezala finkatu nahi da hirugarren batzuekin egiten diren kontratu guztietan jardutean bete behar den metodologia. EUDELek hirugarren batzuekin egiten duen kontratazioan, kontrataziorako barne jarraibide hauen bidez, batez ere, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak adjudikatzeko barne prozedurak arautu nahi dira, hartara, publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatze aldera, eta, era berean, ekonomia-aldetik eskaintzarik onuragarriena eskaintzen duenari kontratua adjudikatzeko aldera, era horretan, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 175.b) artikuluan agintzen duena betez.

Kontrataziorako barne jarraibideak EUDELen kontratugilearen profilean eman beharko dira argitara.

### **2. APLIKAZIO EREMUA**

Kontrataziorako barne jarraibideak nahitaez bete beharko dira EUDELen edozein arlok hirugarren batzuekin egiten dituen kostu bidezko kontratu guztietan, kontratu horien izaera zeinahi delarik ere, eta, betiere, alde batera utzita Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 4. artikuluan (“Bazter utzitako negozioak eta kontratuak” izenekoan) aipatzen dituen negozio eta harreman juridikoak.

### **3. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOA.**

**3.0.-** Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak dira Herri Sektorearen Kontratuen Legeak Aurretiatzeko Tituluaren II. Kapituluko 2. Atalean era horretan definitzen dituenak. Bereziki, horrelakotzat joko dira, besteak beste, Legeak ezarritakoaren arabera kalkulua egin ondoren, 5.150.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak eta, era berean, Legeak ezarritakoari jarraiki kalkulatu ondoren, 206.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidurako eta zerbitzuetako kontratuak, betiere, alde batera utzita Herri Sektorearen Kontratuen Legeak II. Eranskinaren 17. kategoriatik aurreragokoetan sartzen dituen zerbitzuak.

**3.1.-** Obra-kontratuak dira Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 6. artikuluan eta horrekin bat datozen xedapenek era horretan definitzen dituztenak. Oro har, obra-kontratutzat joko dira eraikuntzako lanak egiteko eta ondasun higiezin bat egiteko xedea dutenak.

**3.2.-** Hornidurako kontratuak dira Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 9. artikuluan era horretan definitzen dituenak; eta, oro har, Lege horri jarraiki, hornidurako kontratuak dira, erosteko aukera izanda edo aukerarik gabe, ondasun higigarriak erosteko edo finantzako errentamendua egiteko helburua dutenak.

Hornidurako kontratuak dira, bereziki, materialak, ekipamenduak edo instalazioak xedetzat dutenak.

**3.3.-** Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, zerbitzuko kontratuak dira obra edo hornidura ez den emaitza bat lortzeko edo jarduerak egiteko zuzentzen diren prestazioak helburutzat dutenak.

**3.4.-** Kontrataziorako barne jarraibide hauen 10. paragrafoan ezarrita dauden muga desberdinak zehazten dituzten zenbatekoetan, ez dago BEZ barne hartuta, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 76. artikuluan ezarritako arauak jarraiki.

**3.5.-** Gidaliburu honetan egunen arabera finkatutako epeak egutegiko egunak direla joko da, betiere, gidaliburuan bertan adierazten ez bada soilik egun baliodunak zenbatu behar direla. Alabaina, epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

**3.6.-** Kontrataziorako barne jarraibide hauek 10. paragrafoan, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak II. Eranskinaren 17.etik 27.era bitarteko kategorietan barne hartu dituen zerbitzuen kontratuei dagokienez, adierazten duten zenbatekoa, eta, orobat, EUDELeke egin dituen kontratuak erregulazio harmonizatuari lotuta daudela jotzeko oinarritzat hartzen diren zenbatekoak, hala behar denean, gaurkotutzat joko dira, Europako Batzordeak Herri Sektorearen Kontratuen Legeak Hamalagarren Xedapen Gehigarrian xedatutako baldintzen arabera finkatu duenarekin bat.

#### **4. TARTEAN DAUDEN PERTSONAK ETA ARLOAK**

EUDELeke langile guztiak.

#### **5. KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEEK ARAUTUTAKO KONTRATAZIORAKO OINARRI OROKORRAK**

EUDELeke hirugarren batzuekin egiten dituen kostu bidezko kontratuak erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuak edo erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak direla jo daiteke. Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuek Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 1. artikuluan jasotzen dituen oinarriak bete beharko dituzte; eta kontratu horien adjudikazioak, nolahi ere, publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak bete beharko ditu, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 175. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Printzipio horiek bete direla joko da, baldin eta kontrataziorako barne jarraibide hauen ondoko idatzatietan finkatuta dauden arauak betetzen badira. Bestalde, horiek ezartzeko eta interpretatzeko, jarduteko jarraibide hauek bete beharko dira:

**(a)** Publikotasunaren printzipioa bete dela joko da, izan daitezkeen lizitazailerik guztien onurarako, EUDELeke kontratuari buruzko informazioa ezagutzera emateko eta hedatzeko eta merkaturak lehiari zabaltzeko aukera ematen duten bitarteko egokiak jartzen direnean.

**(b)** Gardentasunaren printzipioa bete dela joko da, dagokion kontratua adjudikatu aurretik, informazio egokia hedatzen edo ezagutzera ematen denean, hartara, lizitazioan parte hartzeko interesa izan dezaketen lizitazailerik guztiek lizitazioan parte hartzeko interesa dutela adierazi ahal

izan dezaten. Era berean, printzipio horren ondorioz, parte-hartzaile guztiek aurrez ezagutu ahal izango dituzte adjudikatu nahi den kontratuari aplikatu ahal zaizkion arauak, eta, era berean, ziur egon beharko dute arau horiek era berean aplikatuko zaizkiela enpresa guztiei.

(c) Kontrataziorako barne jarraibide hauekin bat etorrira, behar diren neurriak hartuko dira, egon daitezkeen lizitatzailleak erraztasunez sar daitezzen eta parte hartu ahal izan dezaten, hartara, ekonomia-aldetik onuragarriena den eskaintzari kontratua adjudikatze aldera.

(d) Konfidentzialtasunaren printzipioa betetzeko, EUDELeK nahitaez onartu beharko du enpresaburuek isilpekotzat jo duten eta eman duten informazioa ezagutzera ez emateko betebeharra, betiere, behar bezala justifikatutako arrazoiak baldin badaude horretarako, bereziki, eskaintzen merkataritza- edo teknika-arloko sekretuak eta isilpeko alderdiak. Era berean, printzipio hori aplikatzean, kontratistek behar bezala errespetatu beharko dute kontratua betearaztean eskuragarri duten informazioaren isilpeko izaera, pleguetan edo kontratuetan izaera hori eman bazaio informazioari, edota informazioaren beraren izaera dela-eta halakotzat hartu ahal bada.

(e) Berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak bermatze aldera, neurri egokiak hartuko dira, prozeduretan inpartzialtasuna eta ekitatea egon dadin. Neurri horiek, gutxienez, alde hauek hartuko dituzte barne:

- I. Kontratuen xedea beti deskribatu beharko da inolako bereizkeriarik egin gabe, fabrikazio edo jatorri jakin bati aipamenik egin gabe, eta, era berean, produktu bereziei edota marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen jakin bati aipurik egin gabe, non eta mota horretako aipamenak behar bezala justifikatzen ez diren eta “edo baliokidea” aipamenarekin batera jartzen ez diren.
- II. Ezin izango da inolako baldintzarik jarri, Europar Batasuneko kideak diren beste estatu batzuetan egon daitezkeen lizitatzailleei bereizkeria zuzena edo zeharkakoa egiten badie.
- III. Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako frogagiriak aurkezteko eskatzen bazaie, kideak diren beste estatu batzuetako agiriak onartu beharko dira, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diplomak elkarri onartzeko printzipioarekin bat etorrira.
- IV. Kontratu batzuk adjudikatze prozeduran hornitzaile edo zuzkitzaile bat baino gehiago aurkezten bada, EUDELeK behar bezala bermatuko du horiek guztiek informazio berbera izango dutela kontratuari buruz eta baldintza berberetan egongo direla.

## **6. KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEETAN ARAUTUTAKO KONTRATUEI EZAR DAKIEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA KONTRATU HORIEN IZAERA**

EUDELeK egindako kontratuak, nolnahi ere, kontratu pribatuak dira, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 20.1. artikuluan ezarri duenarekin bat etorrira.

## **7. ENPRESABURUAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA**

### **7.1. Kontratatzeko gaitasuna**

Kontrataziorako barne jarraibide hauetan arautzen diren kontratuak soilik egin ahal izango dira Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 43. artikuluan ezarritako baldintzak, eta sektore publikoko erakunde guztiei aplikatzen zaizkien eta baldintza horiekin bat datozen aginduak betetzen dituzten pertsoneri. Zehazki, ezin izango zaie kontraturik egin Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 49.1 artikuluan kontratatzeke zehazten dituen debekuren bat betetzen duten pertsoneri.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gaitasuneko eta kaudimeneko gutxieneko baldintzek kontratuaren xedari lotuta egon beharko dute eta proportzioan egon beharko dute helburu horrekin.

## **7.2. Kontratatzeke gaitasuna egiaztatzea**

Kontratatzeke ekonomia- eta finantza-arloko kaudimena eta teknika- edota lanbide-arloko kaudimena egiaztatzeke, kasu bakoitzean kontrataziorako organoak zehazten duena bete beharko da, betiere, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuta; eta, kontrataziorako organoak egokitzat jotzen baldin badu, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 64.etik 68.era bitarteko artikuluetan finkatzen duena aplikatu ahal izango da.

Era berean, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 54.5 artikuluan xedatu duenarekin bat etorruta, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuta, hala behar izanez gero, enpresaburuaren kaudimena egiaztatzeke eskatu ahal izango da, eta, horretarako, enpresaburuak dagokion sailkapena aurkeztu beharko du.

Enpresaburuak bete beharko dituen kaudimeneke gutxieneke eskakizunak eta hori egiaztatzeke eskatuko zaizkion agiriak kontratuaren baldintzen pleguan zehaztuko dira.

## **8. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK**

Kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuta, kontrataziorako organoak berme bat egiteke eskatu ahal izango die lizitatzailerei edo hautagaiei, adjudikazioa egin arte haien eskaintzei eutsiko dietela ziurtatzeko; eta, era berean, adjudikaziodunari berme bat eskatu ahal izango dio, egingo duen zerbitzua era egokian beteko duela ziurtatzeko.

Berme horren zenbatekoa, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak ikusita, kasu bakoitzean ezartzen dena izango da.

Eskatzen diren bermeak Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 84. artikuluan ezartzen dituen era guzietan aurkeztu ahal izango dira.

## **9. KONTRATUAK PRESTATZEA.**

Kontrataziorako barne jarraibideek aipatzen dituzten kontratuak prestatzeke, kontratuen zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, plegu bat prestatu beharko da, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 121.2 artikuluan adierazten duen edukia jasota; eta, era berean, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 104. artikuluan xedatzen duena aplikatuko da. Gehigarri gisa, pleguak egokia den informazioa jaso beharko du, kontrataziorako barne jarraibidetan bat datozen idatz-zatiak betez.

Hau da, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 121.2 artikuluan dioena eta kontrataziorako barne jarraibideetan artikulatu horrekin bat datozen idatz-zatien edukia aintzat hartuta, erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak prestatzean, pleguetan nahitaez jaso beharko dira ondoko aipamen hauek, kontrataziorako organoak egokitzat jotzen dituen gainerako gai osagarriek kalterik egin gabe:

(a) Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak.

- (b) Aldaerak onartzeko araubidea.
- (c) Eskaintzak jasotzeko modalitateak.
- (d) Kontratatorako organoak egokitzen jotzen duenean, lizitazioan parte hartzeko interesa duten enpresaburuei eskatu zaizkien gaitasun eta kaudimeneko gutxieneko betekizunak.
- (e) Kontratatorako organoak egokitzen jotzen duenean, eskaintzak aurkezteko gonbidatuko diren hautagaiak hautatzeko kontuan hartuko diren kaudimeneko irizpide objektiboak, eta, era berean, eskaintza aurkezteko gonbidapena jasoko duten hautagaien gehienezko kopurua; nolahi ere, kopuru hori sekula ez da hirutik beherakoa izango.
- (f) Ekonomia-aldeak onuragarriena den eta, beraz, azkenean, kontratuaren adjudikazioa jasoko duen eskaintza zehazteko ebaluatuko diren irizpide teknikoak eta ekonomikoak.
- (g) Kontratazioko organoak beharrezkotzat jotzen duenean, balorazioko organo bat eratuko da, aurkeztutako agiriak kalifikatzeaz, eskaintzak baloratzeaz eta adjudikazioa emateko proposamena egiteaz arduratu dadin.
- (h) Hala behar denean, hautatutako lizitatuak edo lizitatuak eratu behar dituzten bermeak.
- (i) Hala behar denean, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 104. artikuluan, lan-kontratuaren subrogazioa egiteko baldintzei buruz, ezarri duenaren arabera egokia den informazioa.
- (j) Hala behar denean, enpresaburuari ezartzen zaion konfidentzialtasunerako betebeharraren hedadura objektiboa eta denborazkoa.
- (k) Hala behar denean, lizitatuak informazio gehigarria lortzeko ezar daitezkeen epeak, eskaintzak eta, hala dagokionean, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak, eta, era berean, aurkeztutako agiriak zuzentzeko dauden epeak, betiere, kontratazioko organoak egokitzen jotzen badu.
- (l) Kontratua formalizatzeko epea, egutegiko hamar eguneko ez den epe bat ezarri nahi denean.

Erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak prestatzean, kontratatorako barne jarraibide hauen 10.3 paragrafoan aipatzen den publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratuak adjudikatzen direnean (2. mugako kontratuak), plegu erraztua erabili ahal izango da.

## 10. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ADJUDIKATZEA

### 10.1. Kontratuen mugak.

Zenbatekoaren arabera, kontratatorako barne jarraibide hauei lotuta dauden kontratuak hiru muga desberdinetan sailkatu ditugu (hemendik aurrera, “**muga**” edo “**mugak**”), eta muga horietako bakoitza kontratazioko prozesu desberdinen mende egongo da.

Honako hauek dira mailak:

- (i) **1. muga.** Muga honen mende daude 18.000 euroko edo hortik beheragoko balio zenbatetsia duten kontratuak, edozein motatako kontratuak direlarik ere.
- (ii) **2. muga.** Hemen daude 18.001 euro eta 50.000 euro bitarteko balio zenbatetsia duten kontratuak, edozein motatako kontratuak izanda ere.
- (iii) **3. muga.** Hemen aurreko 2. mailako balio zenbatetsia gainditzen duten eta Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 13. artikuluan xedatu duenaren arabera erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak daude.

Hala, bada, besteak beste, maila honetan balio zenbatetsi hau duten kontratuak sartuko dira:

- Obra-kontratuak badira, 5.150.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak.
- Gainerako kontratuetan, 206.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak, baina zenbateko hori gainditzen duten eta Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak II. Eranskinaren 17. kategoriatik aurrera sartzen dituen zerbitzuei dagozkien kontratuak alde batera utzita.

## 10.2 Publikotasuna

Kontratuaren maila zeinahi delarik ere, haren balio zenbatetsia 50.000 eurotik gorakoa bada, EUDELen kontratatzailearen profilean lizitazioari buruzko informazioa jaso beharko da. Alabaina, beharrezkotzat jotzen bada, baliabide gehigarriak erabili ahal izango dira informazioa ezagutzera emateko.

Lizitazioaren iragarkian informazio hau sartu beharko da:

- a) Adjudikazioa jaso duen erakundearen izena.
- b) Kontratuaren helburuaren deskribapen laburra.
- c) Kontratua adjudikatzeko prozedura.
- d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.
- e) Adjudikazioa emateko oinarria izango diren irizpideak jasotzen dituen agiriaren aipamena.
- f) Kontratuari buruzko informazioa eta dokumentazioa nola jaso daitekeen azaltzen duten argibideak.
- g) Eskaintzak aurkezteko muga-eguna eta tokia.

Nolanahi ere, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak ikusita komenigarria bada, iragarkiaren edukia zabaldu ahal izango da, edo informazio gehigarria gaineratu ahal izango da kontratatzailearen profilean.

Aurreko paragrafoetan finkatutakoari kalterik egin gabe, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 154.etik 159.era bitarteko artikuluetan jaso duen prozedura negoziatua ezartzen den kasuetan, publikitatea alde batera utzi ahal izango da, betiere, lege-testu horrek 161. artikuluan adierazitakoari jarraiki, publikitatea egitea nahitaezkoa ez bada, edo Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 154. artikuluen b), d) eta e) idatz-zatietan jasotzen dituen kasuetako bat bada.

## 10.3. Kontratazio-prozedurak

Aurreko mugetan barne hartutako kontratuei ezar dakizkiekeen kontratazioko prozedurak ondoko zerrendan agertzen direnak izango dira.

Muga horietako bakoitzari begira ezarri denari kalterik egin gabe, kontratuaren ezaugarriak eta baldintzak aintzat hartuta, kontratazioko organoak erabakia hartu ahal izango du beheragoko muga batean goragoko muga bati dagozkion arauak ezartzeko.

### (i) 1. mugako kontratuak: Zuzeneko adjudikazioa

1. MUGA honen mende dauden kontratuak ZUZENEAN ADJUDIKATUKO DIRA.

EUDELen kontratazioaren erantzukizuna duen pertsonak eskaintza eskatuko dio enpresa bakar bati, eta zuzenean emango dio adjudikazioa enpresa horri.

Kontratazioa egiteko, enpresak eskaintzen duen aurrekontua onartuko da (eta, horretarako, aski izango da fax edo posta elektronikoko mezu bat bidaltzea), edota, egokitzen jotzen bada, kontratu egokia sinatuko da. Arduraduna izango da izapideak kudeatuko dituen, eta, orobat, eskatutako materiala edo zerbitzua jasotzeaz eta gainbegiratzeaz arduratuko dena.

**(ii) 2. mugako kontratuak: hiru aurrekontu eskatzea edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak**

2. mugako kontratuak ardura duen pertsonak adjudikatuko ditu, eta, HORRETARAKO, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUA beteko du, edo, bestela, HIRU AURREKONTU ESKATUKO ditu.

Adjudikazioa hiru aurrekontu eskatuz egitea erabakitzen bada, ez da beharrezkoa izango baldintzen plegua egitea. Adjudikazioa PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN bidez egitea erabakitzen bada, berriz, baldintzen plegua prestatu beharko da, baldintzen plegu hau erraztua izan daiteke kontrataziorako barne jarraibide hauetako 9. atalari adierazten den bezala, eta bete beharreko prozedurak arau hauek izango ditu:

1. Ahal den neurrian, EUDELek eskaintza eskatuko die gutun, posta elektronikoko edo faxaren bidez, gutxienez, kontratua egiteko gaitasuna duten hiru enpresari, eta eskaerarekin batera plegua ere erantsiko die. Alabaina, kontratazioeko organoak egokitzen jotzen badu, kaudimeneko irizpide objektiboak ezarri ahal izango ditu, eskaintzak aurkezteko gonbidapena jasoko duten hautagaiak hautatzeko, interesa erakutsi duten hautagai horien artean. Era berean, gonbidapena egingo zaien hautagaien gehieneko kopurua finkatu ahal izango du, baina ezin izango dira inola ere hiru baino gutxiago izan. Irizpide objektibo horiek dagokien pleguan sartu beharko dira gutxienez.

Nolanahi ere, enpresa bakar bati eskatu ahal izango zaio eskaintza, arrazoi teknikoak edo artistikoak direla-eta, edota eskusibako eskubideen babesarekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta, kontratuaren enkargua enpresaburu jakin bati nahitaez eman behar zaionean.

2. EUDELek kontratuaren edozein alderdi negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin, pleguen negoziatuetatik kanpo uzten diren alde horiek izan ezik; eta, negoziazioa egiten den bitartean, ondo zainduko du dena lizitatzailere guztiek tratatu berbera izan dezaten eta, horrez gain, ez du informaziorik emango bereizkeria eginez.

3. Eskaintzak baloratzeko prezioaz bestelakoa den irizpideren bat kontuan hartu behar denean, horretarako eskumena duen organoak egokitzen jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, adjudikazioa egiteko proposamena egin aurretik. Era berean, txosten horiek eskatu ahal izango dira, eskaintzek pleguko zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatzea behar denean.

4. Kontratazioaren ardura duen pertsonak eskaintzen konparazioeko taula bat prestatuko du, eta kontratua eskaintzarik onuragarrienari adjudikatzea proposatuko du. Kontratua burutzeko, kontratua pleguan ezarritako moduan sinatuko da.

**(iii) 3. mugako kontratuak: Prozedura irekiak, murriztuak, negoziatuak publizitatearekin, edo lehiatzeko elkarriketa**

Kontratazioeko organoak ondo zehaztu beharko du pleguan hautatu duen adjudikazioeko prozedura, kontratuaren ezaugarriak aintzat hartuta, eta hurrengo paragrafoetan finkatutako arauak betez.



Muga honetan, kontratuak adjudikatzeko prozedura arrunta publizitatearekin egindako prozedura negoziatua izango da, eta horri 2. mugako publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kontratuatarako finkatu diren arauak aplikatuko zaizkio.

Hori gorabehera, ondoko kasu hauetan, prozedura irekia edo murriztua aplikatzea erabaki ahal izango da:

**(a)** Kontratatu behar diren prestazioak behar den zehaztasunez azalduta badaude, eta, beraz, haiei dagozkien alderdi teknikoak edo ekonomikoak negoziatzea beharrezkoa ez denean. Berariaz jaso beharko da enpresa bakar bati eskaintza eskatzeko aukera, arrazoi teknikoak edo artistikoak direla-eta, edota eskusibako eskubideen babesarekin zerikusia duten arrazoiak direla-eta, kontratuaren enkargua enpresaburu jakin bati nahitaez eman behar zaionean.

**(b)** Garrantzi ekonomiko berezia dutelako eta erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuen zenbatekoetatik hurbil daudelako, kontratu batzuetan, kontratazioko organoak uste badu prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez hobeto bete ahal izango direla kontrataziorako barne jarraibide hauen 5. paragrafoan azalduta dauden oinarriak.

Prozedura irekia edo murriztua ezartzen den kasuetan, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 141. artikulutik 152. artikulura bitartean ezarri duena aplikatuko da. Alabaina, ez dira aplikatuko lizitatzaileri eman beharreko informazioari dagozkion epeak, ez eta parte hartzeko eskabideak edo eskaintzak aurkezteko epeak ere, eta, horien ordean, iragarkian edo, hala behar denean, pleguan ezartzen diren epeak finkatuko dira. Nolanahi ere, finkatzen diren epeak egokiak izango dira lizitatzaille guztiek era egokian ebaluatu ahal izan dezaten eta eskaintza aurkeztu ahal izan dezaten. Bestalde, ez da nahitaezkoa izango behin-behineko adjudikazioa egitea; behin-behineko adjudikazio hori soilik egingo da kontratazioko organoak egokitzat jotzen badu, eta hori guztia dagokion pleguan zehaztu beharko du.

Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 164. artikuluan ezarritako kasuren bat tartean denean, lehiatzeko elkarrizketaren prozedura aplikatzea erabaki ahal izango da, eta elkarrizketa horrek Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 163. artikulutik 167. artikulura bitartean xedatu duena beteko du, eta aurreko paragrafoetan prozedura irekiei edo murriztuei buruz xedatu ditugun egokitzapen berberak egingo dira.

Nolanahi ere, kontratazioa egiteko ardura duen pertsonak aurkeztutako eskaintzak jasoko ditu, balorazioko txostena prestatuko du, eta, txosten horretan oinarrituta, adjudikazioa emateko proposamena egingo du. Bestalde, eskumena duen figurak txostena berrikusi eta onetsiko du. Kontrataziorako balio loteslea duten agiriak erantsiko zaizkio kontratuari.

#### **10.4. Kontratista hautatzea**

Kontratuen adjudikazioa EUDEL-en kontratugilearen profilean emango da argitara, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak aintzat hartuta bestelakorik erabakitzen ez bada.

#### **10.5. Kontratuak formalizatzea.**

Dagokion pleguan bestelakorik jasota egon ezean, EUDELEK egiten dituen kontrataziorako barne jarraibideen mende dauden kontratuak aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez, Herri Sektorearen Kontratuaren Legeak 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira:

**(a)** Alderdiak identifikatzea.

- (b) Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasuna egiaztatzea.
- (c) Kontratuaren helburua azaltzea.
- (d) Kontratuari ezar dakioken Legeriari buruzko aipamena.
- (e) Kontratua osatzen duten agirien zerrenda. Kontratuan horrela adierazten bada, zerrenda hori hierarkikoki antolatu ahal izango da, aldeek adosten duten lehentasunaren arabera ordenatuz; eta, horrela izatekotan, eta ageriko akatsik ez badago, ituntzen den ordena erabiliko da dagokion gailentasuna zehazteko, hainbat dokumenturen artean kontraesanen bat badago.
- (f) Prezio ziurra edo prezio hori zehazteko modua.
- (g) Prezioen berrikuspenaren arabera xedatzen dena.
- (h) Kontratuaren iraupena, edo kontratua betearazten hasteko eta bukatzeko zenbatetsi diren datak; eta, era berean, luzapena edo luzapenak egiteko aurreikusi direnak –horrelakorik aurreikusi bada–.
- (i) Prestazioak jasotzeko, emateko edo onartzeko baldintzak.
- (j) Ordaintzeko baldintzak.
- (k) Kontratua zein kasutan suntsiarazi behar den.
- (l) Hala behar denean, kontratistari ezartzen zaion konfidentziasunerako betebeharraren hedadura objektiboa eta denborazkoa.

Kontratua sinatzen den I. mugari atxikitako kasuetan (ZUZENEKO ESLEIPENA), beharrezkotzat jotzen ez diren edo desegokiak diren hitzarmenaren alderdiak alde batera utzi daitezke, aurreko paragrafoko a) a1) letretan jasotako edukiaren arabera.

Kontratua formalizatzen denean, egintza hori, gehienez, egutegiko hamar eguneko epean egin beharko da, kontratista hautatzen denetik zenbatzen hasita, betiere, pleguetan edo dagozkion eskaintzetan bestelako eperen bat zehaztu ez bada. Kontratua ez bada kontratistari egoz dakioken epean gauzatzen, EUDELeK hitzarmena eteteko aukera izango du.

## **11. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK**

Bere kontratuen adjudikazioa arrazionalizatzeko eta agintzeko, EUDELeK enkante elektronikoak egin, esparru-akordioak burutu, sistema dinamikoak eratu, edo obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa zentralizatu ahal izango du zerbitzuetan edota beste sozietate edo erakunde batzuetan, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 132. artikuluan eta 178.etik 191.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraiki, eta, nolahi ere, kasu bakoitzean kontrataziorako barne jarraibide hauen ondorioz egin beharreko egokitzapenak egingo dira.